


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko irailaren 27a

✕



Herri telebisten oinarriak ezarriz

■ Nafarroako Gobernuak lur uhinen bidezko herri telebisten araudia onartu zuen hil honen 9an, auzi honen inguruan orain arte egon den hutsunea betetzeko asmoz. Gure herrialdean halako hiru telebista daude, Iruñean bat, Tafallan beste bat eta Tuteran hirugarrena. Araudia

onartuta, lizentzia eskuratzeko behar den prozedura bete beharko dute. Oro har, herri esparru guztiek izanen dute telebista sortzeko aukera eta udalarenak izanen du lehentasuna. Dekretuari buruz iritzi ezberdinak jaso ditugu orriotan. ■

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



Behin baino gehiagotan galdetu diot nere buruari zertarako behar genuen Nafarroan gobernu bat. Presidentea aukeratzeko orduan hilabeteak ematen genituen administrazio osoa funtziotan zegoela eta ematen zuen hala ere, denak berdin jarraitzen zuela funtzionatzen, beti bezala edo gutxienez beti bezain gaizki.

Denbora pasatu ahala, ohitu gara, askotan nork manatzen duen ez jakitera, Azken finean, agintari sartu berriek onak egin dituzte aurrekoak, beraiek ere laster parregarri izateko hurrengoan aurrean.

Harrokeria, ustelkeria eta efikaziarik gabekoetan osotara murgildurik ezagutu ditugu azken denboretan ezkerrekoak zirela ziotenak, eskuindarrek lagundurik, gero eskubitarrak inoiz ez-kertasunik erakutsi ez diguten horien laguntzaz.

Oraingoan sozialistak agintearen jabe eta UPN itzalean gertu, geroxeago UPNkoak nagusi eta sozialistak ondoan, eskua behar izatekotan laguntza emateko prest. Batzuren zikinkeriak

Hipokritak

besteek estaltzen dituzte eta segidan ordea dator.

Penelope zebilen modura dabilta gaur eguneko agintari nafarrak. Sarea egunez osatzen du gobernu batek eta gauzez desegiten du hurrengoak. Bi arrerapausu lehenbizi eta segidan atzerapausu hiru.

Bainan ez da zorianik mila urte irauten duenik. Eskua luzatu hemendik, poltsikoa handik bete eta garai batean zeudenak desagertu dira. Nahiz eta eskuak betikoak izan ez dago jadanik zer ateratzerik. Orain arte egindakoak gaizki zeudela eta konpontzen saiatu behar direla esaten digute berriek hitz politez osaturiko mintzaldietan, beraiek betidanik ezagutu ditugunak ez balira bezala. Nork sinistuko die? Sinismen handikoak izan beharko ginake. Inozo hutsak.

Beraiek uju ta aja, tori hau, hartu bestea, orain ni, gero zurea, poliki dabilta bitartean, murrizketak, oztopoak eta estutasunak behekoentzat dira. Badira urte bateko epe motzean hiru gobernu desberdin ezagutu dituzten pa-

perak. Burokrazia inoiz baino mantsoagoa bihurtu da. Ongizate gizarte zorgarri honetan ez da aspaldiko partez haurtzaindegi berriak egiten, are gutxiago adinekoentzako egoitzak. Administrazioa zerbitzuak (ez funtzionariak) «bihar berriz etorri» esateko gauza besterik ez omen dira.

Mediku-espezialista bati kontsulta eskatu eta txanda tokatzerakoan, aspertu, sendatu edota hil egin zara jadanik.

Gazteen arteko lan-kalitatea, lana dagoenean noski, penagarri eta haserretzeko modukoa da geroz eta gehiago.

Kaotikoa egin zaigu administrazioaren tresneria. Gizarteko hainbat arlotan frustrazio eta amorrua sortu besterik egiten ez duten bitartean, gure agintari gaixoak, besteoi nola lapurtzen den, gauzak nola ez diren egin behar erakusten digutela, ustezko harridura osoz mintzatzen zaizkigu gertatzen diren kale iskanbiletz.

Zoazte pikutara hipokrita madarikatuak. ✕

* **GURE AUKERAK****KONTZERTUAK**

Aitzoain: Cool Jerks taldeak *Soul to waste* azken diskoa aurkeztuko du gaur, hilak 27, Artsaia Music Cluben, 23:00etan. Sarrerak 1.500 pezetan (60 libera) izanen dira salgai.

Iruñea: Euskadiko Orkestrak kontzertua eskainiko du urriaren hiruan, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

Doneztebe: Ostegunean, hilak 5, Nahi ta Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du Bordatxo dantzatokian.

Gares: Gamma Ray, Stratouarius eta Rage taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren bostean, 22:00etan, Fundamental dantzatokian. Sarrerak 2.500 pezetan (100 libera) izanen dira salgai.

Aitzoain: Hilaren bostean kontzertua eskainiko du Tahures Zurdos taldeak Artsaia Music Cluben. Sarrerak 1.200 pezetan (48 libera) izanen dira salgai.

ANTZERKIA

Iruñea: *Después de la lluvia* obra ikusi ahal izanen da larunbatean eta igandean, hilak 28 eta 29, 20:00etan eta 23:00etan Gaiarre antzokian. Horretan Maribel Verdu bezalako sona handiko aktoreek parte hartzen dute.

ERAKUSKETAK

Iruñea: 70eko hamarkadan Madril figurazioa landu zuten zortzi artistaren lanak ikusgai izanen dira Nafarroako museoan urriaren 27ra arte. Museoa astelehenetan itxita egoten da; asteartetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egoten da zabalik, eta igande eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara.

Iruñea: Gotorlekuko Labea aretoan *Formak* izeneko erakusketa ikusgai izanen da igandera arte. Horretan, gaur egungo eskulturaren erakusgarri diren hainbat lan dira ikusgai.

Elizondo: Jose Luis Mayorren margoak ikusgai izanen dira urriaren 3ra arte herriko Arizkunenea Kultur Etxean.

LEHIAKETAK

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaleko Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia libre da eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

IKASTAROAK

Iruñea: Esperanto ikastaroa antolatu du Nafarroako Esperanto Elkarteak. Ikastaroa urrian da eta abenduan amaituko da. Informazio gehiago eskuratzeko galdetu Gaztediaren Etxean (Zangoza kalea z/g).

nafar kronika

Patxi Larrion

Solasa

Elkarriketazalea da egokitu zaigun gobernu berria. Alta, lehendakariaren zenbait adierazpenek bestelako jokamoldeak erakusten dituzte. Hitzetatik ekintzetara doan pasabidea azkar igaro dute kontseilariak. Botere egarria nonbait. Gobernu berriari, teoriarik behinik behin, ehun eguneko epea ematen zaie. Bada, ehun ordu pasatxo dituen gobernuaren inguruko edozein kritika balio gabekoa kontsidera daiteke. Arrisku hori aintzat hartuta ere, ene aburuz, hartu diren zenbait erabakik gogoeta merezi dute. EAE eta Nafarroaren arteko batzorde iraunkorra edota funtsezkoena dena bien arteko elkarlana ezerezean geratuko omen da. Horixe dugu UP-Nkoen boluntatea, elkarriketaren bidea

baztertu gabe, hitzarmena edukinez hustea erregionalisten nahia. Bestaldetik, Hizkuntz Politikaren inguruan hartuko den erabakiak zenbait euskaldunon kezka sortu du. Kezka hori zenbaiterainokoa den ezin jakin, egunkari honen edizio nazionalen Matias Mujikak hautaketa prozesuaz eta nafar gizartearen jokamoldeaz egin arteketa zuzenak erakusten duen legez. Beti ere, zuzendaritza nagusi hau Hezkuntzara pasatzeak, teoriarik, galera suposatuta beharko luke. Teoriak dioenez, Lehendakari-tzan hartutako erabaki orok eragina du gainerako departamentuetan. Hemendik aurrera Hezkuntzara mugatuko dira zuzendaritza horretan harturiko erabakiak. Solasa nahi dut, igande honetan, Berriozarren, eginen den festaren ardatza.

**asteako pertsonaiak**

Nacho de Felipe
Abeslaria

■ Nacho de Felipe abeslariak musika talde berria aurkeztu zuen joan den asteazkenean, Nafarroa Oinezko antolatzaileek deituriko prentsurrekoan: Oskorri & the pub ibiltari. De Felipek hitzetan, «Oskorri izango da, eta ez da Oskorri izango». Talde berriaren kantaldietan Oskorriko musikariak euskal kanta ezagunak joko dituzte, baina ez dira bakarrik ariko. Musika tresna bat jotzen, edota kantatzen dakien edonork eurekin batera aritzeko aukera izanen du. Oskorri & the pub ibiltari urriaren 13ko Etxarriko Nafarroa Oinezko eskainiko du bere estreinako kontzertua. Horren gibeletik, azaroan edo abenduan, zuzeneko kontzertu batean diskoa grabatuko du.



Javier Ansoategi
Madrilgo Gobernuako ordezkaria Nafarroan

■ Uharteko jaietan kale borrokan zebiltzan gazteen eta istilurik nahi ez zuten gazteen arteko liskarrak izan ziren. Javier Ansoategi Madrilgo Gobernuako ordezkariak «biolentoei aurre egin zieten» gazteen jokaera txalotu du. Haren aburuz, istiluak eragotzi zituzten gazteen jarrera «oso sana» izan zen, eta herriar guztiek berdinduta jokatu beharko lukete horrelako egoeretan. Enfrentamendu zibila sortzeko arriskurik dagoen geldetu diotenean, gobernu ordezkariak ezetz erantzun du: «Inola ere ez. Gazteen erreakzioa bat-batekoa eta txalogarria izan zen. Beraien herriko jaien defentsan jokatu zuten, eta horrek ez dakar inolako arriskurik. Aitzitik, oso sana da».

ahaztu gabe!**MUSIKA INTSUMISOA**

Burlata: Kakitzat talde antimilitaristak antolatutako, intsumisioaren aldeko rock kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 28, gaueko bederatzi eta erdie-tatik aurrera, Burlatako Askatasuna pilotalekuan. Gaueko ordu txikiak arte Deabruak Teila-tuetan, Zebda, Koma eta La Polla taldeen musika entzun ahal izanen da bertan. Sarrerak 1.200 pezetan izanen dira txartela aurretik erosten dutenentzat (48 libera), eta 1.400 pezetan txarteldegietan bertan eskuratzen dutenentzat. Biharamunean, hilak 29, Intsumisioaren Eguna ospatuko dute Berriozarren, Kakitzaten eskutik. Bertan ere musika intsumisioa gozatzetik izanen da, hain zuzen ere Mal de Ojo taldearen rumbak, Morochos taldearen tangoak eta milongak, eta Balerdi Balerdi taldearen rock and rolla, txarangak (Basandere, Ziripot eta Jarauta 69), txistulariak (Altzeta taldea), jotak, bertsoak...

adi!**Euskalerria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaine-tik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Lesaka

Bidasoako Trenari omenaldia


Lesaka, Sunbilla, Elizondo, Doneztebe, Bera eta Irunen erakusketa jarriko dute

Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkartek antolatuta, omenaldia jasoko du 1916. urtean sortu Bidasoako Trenak. Hainbat urtetan Irun eta Elizondoko biztanleak bildu zituen, 1956. urtean eraitsi zuten arte. Lesakan hasi eta Sunbilla, Elizondo, Doneztebe, Bera eta Irun bisitatuko dituen erakusketa antolatu dute, baita hitzaldiak eta ibilaldiak ere.

Erredakzioa / Iruñea

IRUN eta Elizondo batzen zituen Bidasoako Trenaren hasieraren 80. urteurrena, eta bere eraipearen 40.a ospatzen dira aurten. 1916. urtean jarri zen martxan Tren Txikito izeneko eta 1956an, berriz, betiko amaitu ziren bere bidaia. Hori dela eta, Bertizko Partzuergo Turistikoak omenaldia eskaini nahi izan dio. Horretarako, erakusketa antolatu du trena pasatzen zen hiri batzuetan, eta bestetik, erakusketaren inguruan, beste hainbat ekitaldi antolatu ditu, hau da, ibilaldiak oinez eta bizikletaz eta trenaren historiari eta trenbidearen egoerari buruzko hitzaldi sorta. Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkartarekin eta Galarur elkartearekin batera antolatu du Bertizko Partzuergoak aipatu omenaldia eta Nafarroako Gobernuaren laguntza ere jaso dute.

Bidasoako Trena erakusketari dagokionez, Lesakan izanen da lehendabizi, urriaren 1a eta 13a bitartean. Ondoren Sunbilla joanen da eta bertan urriaren 15etik 27ra egonen da. Elizondon ikusi ahal izanen dute gero, aza-



1916. urtean hasi zen Bidasoako trena.

TTPI-TTAPA

roaren lehen hamabostaldian. Donezteben ere izanen da ikusgai, azaroaren 19tik abenduaren 3ra. Eta Beran, abenduaren 5etik 22ra. Irunera ere ailegatu-ko da Bidasoako Trena erakusketa, baina data zehazteke dago oraindik antolatzaileek jakinarazi dutenez. Erakusketan, hitzaldietan bezala, trenaren historia eta trenbidearen gaurko egoera ezagutu ahal izanen dute bisitariak. Historiari buruz, ehun bat argazki bildu dituzte antolatzaileek. Igantziko geltoki zaharren maketa bat ere izanen

da ikusgai. Gaur egungo egoera ezagutzeko, berriz, hiru mural handi prestatu dituzte. Diapositibak ere ikusi ahal izanen dituzte.

Trenaren historiari eta trenbidearen gaurko egoerari buruzko hitzaldiak ere aipatu herrietan eskainiko dituzte. Historiari buruz Juan Jose Martiarena mintzatuko da eta gaur egungo egoerari buruz, berriz, Mikel Albisu. Martiarena Lesakan izanen da urriaren 4an, Elizondon 31n eta Donezteben azaroaren 22an. Beste herrietara noiz ailegatu-

den ez dute oraindik zehaztu. Albisu, berriz, urriaren 11n iritsiko da Lesakara, 25ean Sunbilla, azaroaren 8an Elizondora eta 29an Doneztebera. Zehazteke dago Bera eta Irunera noiz joanen den.

Azkenik, ibilaldiak antolatu dituzte Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkartek. Trenbidean zehar izanen dira, oinez zein bizikletaz. Beste garai batean Bidasoako Trenak zeharkatzen zituen bideak ezagutu nahi dituenak hemen du aukera. X

Aurizberri

Mikologi asteburua antolatu dute Imaz Anaiek

■ Onddoak hartu, bildu eta sailkatu egingen dituzte

Erredakzioa / Iruñea

AURIZBERRIKO Kontzejuak eta Imaz Anaiek mikologi asteburua antolatu dute Aurizberriko herriarekin batera. Gaur hasi eta igandean amaituko dira jardunaldiak. Ekitaldi ezberdinak Ederrena kiroldegian egingen dituzte. Gaur gaueko bederatzi eta erdietan *La caza de trufas* izeneko bideoa erakutsiko dute. Hamarretan, berriz, hitzaldia eskainiko du Luis Javier Imazek. Biharko egitarauari hasiera emateko, mendi irteera antolatu

dute goizeko bederatzietarako. Arratsaldeko ordu batean, berriz, goizean hartutako onddoak Ederrena kiroldegian bilduko dituzte, eta ondoren, Basajauen bazkaria egingen dute. Arratsaldeko lauretan, bestalde, onddoak sailkatuko dituzte Imaz Anaien laguntzaz. Bide batez, onddo erakusketa prestatuko dute.

Igandean, azkenik, erakusketatik mikologikoa zabalduko dute eta irekita egonen da arratsaldeko bostak arte, herritarrek ikus dezaten. X

Ibañetako gaina

Hegaztien Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar

■ Hegazti mota ezberdinak ikusi ahal izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

UGATZA talde ekologistak Hegaztien Nazioarteko Eguna ospatuko du bihar Linduxeko behatokian, Ibañetako gainaren ondoan. Txoko honetako ezagarrak direla eta, hegaztiak behatzeko leku aproposa da Lindux, eta bertan egiten dituzte euren azterketak Ugatzako kideek. Biharkoan ere, garai honetan bertatik igarotzen diren hainbat hegazti mota ikusteko parada izanen dute bertara hurbildutakoek, hala nola: zikoina

beltzak, arrano txiki, arrano sugeazale eta arrano arrantzaleak, gabiraiak, belatzak eta abar. Talde ekologistako kideek jakinarazi dutenez, baliteke euren izen bereko hegaztiren bat ikustea, ugatza alegia.

Hegaztien Nazioarteko Eguna ospatzera Linduxera Ugatzako kideekin abiatuko diren guztiak goizeko bederatzietan aterako dira Iruñetik, autobus geltokiarren ondotik. Autobusak 700 pezeta balioko du. Hamaiketako ederra hartzeko aukera ere izanen dute Linduxen. X

Igantzi

Bortzirietako azken jaiak hasiko dira gaur

■ Arratsaldeko 5etan botako dute altxaferoa Igantzin

Erredakzioa / Iruñea

BORTZIRIETAKO azken jaiak dira Igantzikoak, asteburu honetan ospatuko direnak. Eta azkenekoak direlako, hain zuzen, jende andana biltzen dute urtero, inguruko herriko parranderoei ez baitzaie oraindik besta egiteko gogoia amaitu. Igantzira joan nahi duenak, jakin dezala gaur bertan hasi, eta datorren astelehenean bukatuko direla bertako jai egunak. Eta beste behar den moduko hasiera emateko, herri gosaria egingen dute gaur, goizeko 9etan. Ordu erdi beranduago, berriz, plater tiraketa izanen da. Arratsaldeko 4etan Igantziko II. Jota Txapelketa ospatuko dute, eta 5:30etan, azkenik, txupinazoa botako dute Igantziko Herriko Etxeko balkoitik. Larrakaitz txarangak alaituko du giroa.

Altxaferoak eztanda egin ondoren, betizuak izanen dira arratsaldeko 6etan, eta ondorengo erraldoi eta buruhandiak aterako dira herriko karriketan barrena ibiltzeko. Gau partean, gaurdian, Maixa eta Ixiar izanen dira Igantzin.

Bihar eguerdiko 12etan hasiko da eguna kirolzaleentzat. Ordu horretan, pilota partiduak izanen dira, eta arratsaldeko 5etan betizuak berriro eta pottokak. Erraldoi eta buruhandiek ere ez dute huts egingen. Haurrentzat, gainera, egonen da besterik, egun osoan zehar izanen baitira beraientzako jokoak prest herriko plazan. Arratseko 8etan, bestalde, bertso saioa izanen da Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Jokin Sorozabal eta Andoni Egañarekin. Gai jartzaila Berako Jon Abril izanen da. Eta gauean, dantxaldia Urrats taldearekin.

Igandean meza nagusia egingen dute herritarrek abesbatzaren laguntzaz, goizeko 11etan, eta ondoren, 12ak aldera, herriko dantza taldeak bere saioa eskainiko du. Herri kirolek ere izanen dute tarterik Igantziko jailetan, arratsaldeko 6etan. Arratsaldez eta gauez, Izotz taldeak jarriko du musika.

Astelehenean amaituko dira herriko jaiak Igantzin. 11etan, egunero bezala, betizuak ibiliko dira karriketan, eta arratsaldeko ordu bietan zikiri jatea egingen dute Egaña eta Lizaso bertsolarien eta Zizkuitz txarangaren laguntzaz. Astelehenean, Egan taldeak alaituko ditu herriko bazterrak bere musikarekin arratsaldez eta gauez.

Bestak astelehenean bukatuko badira, urriaren 6an ere izanen da zer ospatu Bortzirietako herri honetan, VII. Artzai Txakur Lehiaketa, alegia. X

Herri telebisten dekretua abian

Araudi berriak euskara kontuan hartzen du lizentziak emateko irizpideen artean

Nafarroako Gobernuak lur uhinen bidezko herri telebisten araudia onartu zuen joan den irailaren 9an. Gure herrialdean, halako hiru telebista daude: Pamplona Television, Tele Tafalla eta Tudela Television. Araudia onartuta, lizentzia lortzeko prozedura berria jarraitu beharko dute. Bestalde, herri telebistei lizentzia emateko irizpideen artean kontuan hartuko da euskarari eskaintako tartea.

Edurne Elizondo / Iruñea

UPN-KO Miguel Sanzek Gobernu berria osatu aurretik, hil honen 9an, gure herrialdeko lur uhinen bidezko herri telebistek lizentzia eskuratzeko jarraitu beharko duten prozesua arautzen duen dekretua onartu zuen aurreko Nafarroako Gobernuak. Zerbitzu hau joan den abenduan onartu zen Estatu Legearen bidez dago arautua. Nafarroako Gobernuak, baina, gure herrialdeari dagokion alderdiak arautu berri ditu herri telebisten eremuan dituen eskumenak so eginez, hala nola, baimena emateko prozedura, zerbitzuaren kudeaketa eta finantzaketa, zigorrerregimena eta egun existitzen diren emisorak legeztatze prozedurari dagokionak.

Lur uhinen bidezko hiru herri telebista daude Nafarroan gaur egun: Iruñeko Pamplona Television, Tafallako Tele Tafalla eta Tuterako Tudela Television. Iruñea eta Tuterako 1994. urtean sortu ziren, eta Tafallakoak, berriaz, aurtengo ekainaren 3an aieratu zituen bere mezuak lehen aldiz. Telebista pribatuak dira hirurak.

Nafarroako Gobernuak onartu berri duen dekretuak hiruratan izanen du eragina. Alde batetik, Pamplona Television eta Tudela Television kateak dagokienaz, Gobernuaren dekretuak 1995. urteko urtarrilaren 1a baino lehenago sortutako herri telebisten kasua aurreikusten du jasotzen duen xedapen iragankor baka-rean.

Bestetik, Tafallako Tele Tafalla aurtengo ekainean sortu zen, eta lizentzia eskuratu ahal izateko lehiaketa publikoan hartu beharko du parte.

Udalaren herri telebistek lehentasuna • Egun, Nafarroan diren herri telebisten egoera aztertutik aurrerik, komenigarria da Nafarroako Gobernuak onartu duen dekretuak, oro har, herri telebistei buruz dioena aztertzea. Lehenik eta behin, bi herri telebista mota aurreikusten dira, udalarenak eta pribatuak. Nafarroako herri esparru guztiek izanen dute, printzipioz, telebista izateko eskubidea. Udalarenak izanen du, gainera, lehentasuna. Horretarako, nahi duten udalek euren eskaera egin dezaten epea zabalduko du Nafarroako Gobernuak. Udalak eskaerarik egin ez duen herrietan pertsona edo elkarte pribatuak eskaini ahal izanen dute telebista zerbitzua. Udalak kudeaketa zuzena eskatuko duen herrietan ere sor daitke telebista pribatua, beti ere espektroradioelektrikoan tokirik

badago behintzat.

Udalaren herri telebistei dagokienaz, behin udalak eskaera egin ondoren, frekuentzia behin-behinekoz gordetzeko eta dagokion potentzia zehazteko eskatuko dio Nafarroako Gobernuak Estatuari. Estatuaren ebazpena jakinda, Nafarroako Gobernuak behin-behineko baimena eman edo ukatuko du. Herri telebistaren kudeaketa ekinmen pribatuaren esku dagoenean, baimena emateko lehiaketa publikoa izanen da. Nafarroako Gobernuak hartuko du erabakia. Erabaki hori hainbat irizpide kontuan izanda hartuko du, hala nola, ekoizpen propioari eskaintako tartea, bideragarritasun tekniko, profesional eta ekonomikoa, aniztasuna, sortzen diren lanpostuak eta programazioaren barruan Nafarroako kultur baloreak bultzatzea, horien artean, euskara. Irizpide horiek guztiak kontuan hartuta, behin-behineko baimena emanen du Nafarroako Gobernuak.

Behin-behineko baimena eskuratu (herri telebista publiko zein pribatuaren kasuan), instalazioen proiektu teknikoak aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak. Komunikazio Zerbitzuan, Estatuako Administrazioako organo onarpena jasotzen badu, sei hilabeteko epea izanen du telebistak proiektua gauzatzeko. Azkenik, instalazioa aztertu eta onartu ondoren, behin-betiko baimena emanen du Nafarroako Gobernuak. Baimena bost urterako emanen du Gobernuak, eta beste bost luza daiteke eskatuz gero.

Kontzesioa eskatzeko bi hilabeteko epea • Nafarroako Gobernuak, lur uhinen bidezko herri telebistek lizentzia eskuratzeko jarraitu behar duten prozedura arautzen duen dekretua onartu berri badu ere, gurean halako hiru herri telebista bada-

Gerardo Iratxeta:
«Hasieran alegalak ginen, gero legal bihurtu ginen baina Administrazioaren kontzesiorik gabe, eta orain kontzesioa eskuratu dugu»

Javier Ramos:
«Gobernuaren araudiak ez du guztiz argitzen herri telebisten eremuan egon den nahasketa egoera»

go, lehen erran dugun bezala, Iruñeko Pamplona Television da hiruren artean lehendabizi sortu zena. Gerardo Iratxeta bertako zuzendariak azaldu duenez, «alegalak ginen sortu ginenean, ondoren legal bihurtu ginen baina Administrazioaren kontzesiorik gabe, eta orain behin-behineko baimena eskuratu dugu».

Izan ere, Nafarroako Gobernuaren dekretuko xedapen iragankorrak aurreikusten duenez, bi hilabeteko epea dute kontzesioa eskatu eta legeak jasotzen dituen eskubideak bere egiteko 1995. urteko urtarrilaren 1a baino lehenago sortutako herri telebistek. Eskaerarekin batera, erabili izan duten frekuentzia edo kanalaren eta hedapen eremuaren berri eman beharko dute, besteak beste. Baldintza guztiak beteta, frekuentzien behin-behineko ematea eskatuko dio Nafarroako Gobernuak Estatuari, kontzesioa lortu aurretik. Lortzen ez duten telebistek zortzi hilabeteko epea izanen dute euren emisioak bertan behera uzteko.

Gerardo Iratxeta Pamplona Televisioneko zuzendariak ez du uste Nafarroako Gobernuak onartu duen dekretuak bere telebistaren egoera gehiegi aldatuko duenik. «Nafarroako Gobernuak onartu duen araudia, gainera, ez doa Estatuak abenduan onartu zuen legea baino harantzago». Udaletxeek herri telebista sortzeko duten aukera eta lehen-tasunak, bestalde, ez du gehiegi kezkatzen Iratxeta, «oso zaila eta garestia baita udal batentzat telebista martxan jartzea».

Pamplona Televisionen, gaur egun, 35 langile ari dira lanean, eta 200.000 ikusle potentzial ditu. Laster, egunean hamabi orduz hasiko dira emititzen, eguerditik gauerdia. Horieta bost, ekoizpen propioak izanen dira. Euskarari dagokionez, Bai horixe euskara ikasteko saioa besterik ez du emititzen herri telebista honek, baina ez dute bazterten saio berriak eskaintzea. Gerardo Iratxetak azpimarratu duenez, baina, «euskarazko produktuak saltzen dituztenei erosi behar diegu, eta hori ez dago gure esku oraindik».


1995. urteko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako herri telebista da Tuterako Tudela Television ere. 85.000 ikusle potentzial ditu 1994. urteko urriaren

4an lehen aldiz aieratu zen kate honek. Juan Ramon Simon bertako zuzendariak 20 milioi pezetako inbertsioa egin zuen telebista martxan jartzeko. Nafarroako Gobernuak onartu duen dekretuan azaltzen diren prozedurak jarraitu beharra ezezik, bada Tuterako telebistako arduradunaren ardura eskatzen duen beste gairik ere, ziurrenik laster beste jabeen esku utziko baitu telebista.



Ekainaren 3an sortu zen Tele Tafalla • Bestelako da Tafallako Tele Tafalla telebistaren kasua, aurtengo ekainaren 3an sortu baitzen. Egunean ordubete eta laurden emititzen dute, as-telehenetik ostiralera. Javier Ramos da telebistako burua.

Nafarroako Gobernuaren dekretuak bere lanean izanen duen eraginaz zalantza ditu Javier Ramosek, «oraindik ez baitakit zehazki lehiaketa publikoan parte hartzeko zer egin behar duan. Orain arte alegalak izan gara eta nire asmoa da legal bihurtzea». Hala ere, Ramosen ustez Gobernuaren araudiak ez du guztiz argitzen herri telebisten eremuan egon den nahasmena. «Azken urteetan gora egin dute herri telebistek eta horrek hutsune legala sortu du. Madrillgo Gobernuak ez zekien nola konpondu eta hainbat automomiatako gobernuen esku utzi du eskumen hori».



Ezkerraldean, goian, Javier Ramos Tafallako telebistako zuzendaria. Azpian, bertako telebistako estudioa, eta Pamplona Television-eko platóa. Goian, Gerardo Iratxeta bertako zuzendaria.

OSKAR MONTERO

Herri ala hiri telebista?

NAFARROAN une honetan lur uhinen bidezko hiru herri telebista daude, baina aurki gehiago izanen dira, ziurrenik. Oraindik sortze bidean baino ez badago ere, Nafarroako iparraldek dator herri telebista berri bat abian jartzeko proiektua. Bidasoa eta Baztan alde-tik, hain zuzen. Proiektu honen atzean, Beran egoitza duen *Ti-pi-tapa* aldizkaria eta Baztaneko egoitza duen Xorroxin Irratia dauzkagu, euskal komunikabideen munduan esperientzia nahikoa duten bi talde beraz, Prentsa idatzia eta irrati uhinen bidezkoak ezezik, telebistaren esparrua zabaltzeko nahi diote orain euskarari. Joxemmanuel Irigoien *Ti-pi-tapa* hamaboste-kariko ideak aipatu

digunez, «hasi baino ez dugu egin eta arazo anitz dugu oraindik aurrean konpondu beharrekoa». Nafarroako Gobernuaren dekretu berriarekin iritsi dira arazo horietako asko. Izan ere, Nafarroako iparralde osoan hedaturiko herri telebista sortzea zen euren asmoa hasieran, «baina legeak mugatzen gaitu». Dekretuak aipatzen duenez, herri telebisten hedapen esparrua, salbuespenak salbuespen, herriko biztanleriaren nukleo nagusia izan behar du. Bestalde, euren telebista asmoaren egitura berregokitu beharrean daudela azaldu digu Irigoienek: «*Ti-pi-tapa* eta Xorroxin atzetik, gaur egun, kultur elkarte bat dago, eta telebista kudeatuko duen

enpresak merkataritza enpresa izan behar du. Gure izatea juridikoa, beraz, birformulatu egin behar dugu». Fundazio bat sortzea da orain aztertzen ari diren aukera. Irigoienek ustez, hala ere, arazo ekonomikoa da larrienetarikoa, «diru asko behar baita telebista proiektu bat aurrera ateratzeko». Joseba Igarabide Xorroxin Irratiko kidearen ustez ere, dirua da oztopo nagusienetakoa. Oraingoan, Europako Elkarteari eskatu eta onartutako dirulaguntza baino ez du eskuan herri telebista proiektu berri honek, bost milioi pezetako inbertsioa egin behar du. Igarabideen idudiko, 25 milioi inguru beharko lukete proiektua martxan jartzeko. Nafarroako Gobernuari ere eskatu

diote dirulaguntza, baina honak ukatu egin die, oraindik telebista hasia ez delako. Bi diru iturri hauetaz gain, udalen aportazioa eta publikitatearen bidez lortutakoa dira iparraldeko telebista jarri ahal izateko bertako arduradunek aztertutako dituzten iturriak. *Ti-pi-tapa*-ko Joxemmanuel Irigoienek ustez, zorroztza da Nafarroako Gobernuak onartu duen araudia, «batez ere errealtate urbanointzat egin delako. Ez ditu herri txikiak aukerak kontuan hartzen. Herri telebistaz hitz egiten dute, baina egokiagoa litzateke hiri telebista erratea. Bestela, ez du zentzurik, legeak berak ukatzen baitie herri txikiak euren telebista izateko aukera». X

Xanti Begiristain


Miguel Sanzen nortasuna

■ Orain arte beti entzun dugu aginteak ustelazten duela. Miguel Sanz jaunaren kasuan, momentuz, ematen du alderantziz dela zeren eta oso egun gutxi igaro badira ere lehendakari izendatu zutenetik, dagoeneko makina bat aldiz ikusi baitugu Iruñeko katedralean, San lorentzo elizan, unibertsitate batean, Erriberan Maria Bayori sari bat ematen eta abar. Esan liteke, Nafarroako gobernuburu berriaren kasuan izendapen horrek eraldatu duela eta bat-batean bihurtu duela erlijioso, jakintsu, aditu, itzal handiko eta abar. Izan ere, berehalako batean hasi baikara ikusten al-dareen ondoan (zeinen azkar bilakatzen diren batzuk elizkoi!), eta gotzainaren sotanaren hegalean bero eta ongi babestua. Era berean, dagoeneko agertu da musikari buruzko jakitun bezala, unibertsitateko Gela Nagusian ikasgai magistrala ematen eta beste. Ez dakit, baina mizto pozointsuei entzun diet Miguel Sanz jaunak falta ote duen ikasketa karrerarik, horregatik uzten nau zur eta lur egun hauetan, horren denbora gutxian, hainbeste aurreratzean. Nonbait, karrerarik ez badu ere, lasterkari ona izan beharko.

Hortaz, bai, gure lehendakari zoriontsuaren kasuan (erreparatu al diozue zer zoriontasun aurrerapaga darian?) ematen du, aginteak usteltzeaz gain santifikatu eta kulturizatu ere egin duela.

Zergatik diodan orain «usteltzeaz gain». Beno, ba uste dut nahiko garbi dagoela. Agintearaino iritsi baino lehen hitz egiten zuen «elkarriketari buruz», «gehiengoari buruz» eta abar, eta orain, dirudienez, derrepentean ahaztu zaio dena eta aldatu du emisora. Orain ez du gogoratzen Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaz Hitzarmena Parlamentuen gehiengoak onartu zutela eta bakarrik ematen dio lehentasuna bere gehiengoari. Elkarriketari buruzko diskurtsoa ere, ikusten denez, hasi zaito ahazten, eta orain ez du ezertxo ere jakin nahi elkarriketaren inguruan intsumisioa eta Itoizko aferari dagokienean. Seguru asko fosforo eta erregina-jele gehiago hartu beharko luke gizarajoak.

Bestaldetik ere, badago beste kontu bat izugarri bitxia gertatzen zaidana, hara, betidanik kontatu digute, Eliza erakunde bezala, Nazaretoko Jesusen jarraitzailea dela, beraz, behartsuen aldekoa, askatzailea, preso eta bekatarien defendatzailea eta abar dela, baina nik ez dakit ikusten ditugun horren maiz apezpikuak, gotzainak, monsinoreak, Aita Santua eta abar, lur eta mundu honetako aginte eta boteredunekin. Adierazi dizuedan bezalaxe, ni nahiko motza naiz, gutxi ulertzen dut, baina gai honetan uste dut badudala azalpena, begira, Elizako goimailako pertsona santu horiek ziurraski gehiagotan ariko dira txiroekin abera-



tsekin baino, baina halabeharrez, une horietan telebistetako kamarak ez dira bertan egoten eta horrexegatik gero ezin ditugu ikusi irudi hunkigarri horiek. Norbaitek esan zuen bezala: «Goimailako kléroa» behartsuekin bizi ote den ez dakigu, baina seguru dena zera da, sarritan bazkaltzen duela ugazabaren jauregian».

Nafar guztien lehendakari hau, «baita Baztango euskaldun ororena ere!», ea noiz ikusten dugun euskaraz hitz egiten (kontuz, irakurri gabe!) bere herriko ezagunen bat bezalaxe.

Horren zain bagaude, seguru asko, gureak egin du. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Musikaz blai!: XVIII. mendeko ideiak musika inguruan I: Bordazar eta Sayas

■ Badugu XVIII. mendea tirabira zein eztabaida ugarien garaia, gibelatik zetorren tradizio zaharra eta aitzina begira sortzen ari zen pentsamendu berriak elkarrekin topatzeko tenore liskartsua hots. Musika arloan, besteetan agitu bezainbatean, errieta luze eta franko garatu ziren lido zaharretatik heldu eta berriei atxekitzen zitzaizaien artean. Nolanahi ere, arrakasta osoa erdietsi zuten berrikuntzez gainera, baita egun hagitx ganoragabeak iduritzen zaizkigun hainbat saio jazo ziren, honekero erabat atzenduak daudenak, baina bere momentuan hainbat ezbai eta erantzun sorraziti zituztenak. Saio horietakoak litzateke erroturik zegoen eta dagoen notazio musikala aldatzeko egile ezezagun batek proposatutako erabide berria, zenbakietan oinarria zuena, eta honako izenburu hau daraman liburuan aditzera eman ziguna: *Memorial sacro-político y legal al Rey N. S. en el cual con la mayor brevedad se recuerda cuan necesaria sea la música para lograr los dos fines político y divino, probando primeramente ser más conforme que otra alguna a esta facultad la nueva invención y figuración que en casa del suplicante se enseña y practica*. Madrilén 1709.ean.

Gares ondoan dagoen Artazuko bide zen Jaime Bordazar Valencian ezarri zen inprimatzaile 1684.etik. Hagitz ona omen, guziarekin bere semea Antonio Bordazar Gilabertek gainditu zuen erabat. Turiako hirian 1671.eko azaroaren 9an sortua, orduko pentsalari valenciarrekin hartueman estua izan zuen, berbarako eta besteen artean, Gregorio Mayans i Siscar ezagunarekin. Kultura handiko gizona, latina, frantsesa nahiz italiara ongisko menperatzen zituen, baita filosofia eta matematika ere. Azken jakintza honetan bereziki gailendu zen, eta horren frogazera da, mapak egiteko neurriak hartzen hil zela Cartuxa de Val de Crist izeneko herrixkan 1744.eko azaroaren 2an. Bi zereginak bateraturik, inprimatzaile eta idazlearena alegia, hamaika liburu karrikaratu zituen hamaika gai aztergarri. Arras juzku ona izan zuen 1728.eko *Ortografía española fijamente ajustada a la naturaleza invariable de las letras*, baina hasiera batean ezbai mikatz samina sortu zen Bordazarren egiletasunaren inguruan Feijoo, Mayans eta Mañer idazleak erdian zutela. 1730.ean latinen beste ortografia ere ondu zuen. Historiagile bezala ere anitz idazki plazaratu zituen, besteak beste, 1704.eko *Descendencia real cronológica y genealógica desde la conquista de Valencia*, edo 1731.eko *Relación de la avenida del Turia*. Nolanahi ere bere lan garrantzitsuenak matematika arloan egin zituen: *Proporción de monedas, pesas y medidas con principios de Aritmética y geometría para su uso* 1736.ean, *Tabla para saber todos los días del año a que hora y minuto sale el sol y se pone en Valencia* 1731.ean, eta matematikak jorratuko zituen akademia baten sortzeko ondu orotegiak: *Academia matemática que se propone a los aficionados a influencia del Egregio Felipe Lino Castelví*, 1738.ekoa, eta *Idea de una academia matemática*, 1740.ekoa. Bordazarrek matematikaz zuen ideian musika ere sartzen zen, eta ertaroan indarrean zegoen araudira bueltatu nahia zuen. Musika bi zatitan banatzen zuen, espekulatiboa eta praktikoa, eta halaber, bi hauek ortologiak, glotologiak, armoniak nahiz fonokantikak, eta ahozkoak nahiz instrumentalak osatzen zituzten.

Musikaren gai bera beste idazle nafar batek ere ukitu zuen zenbait urte beranduxeago, Juan Franzisko Sayas irunsemeak alegia. Honek *Música canónica, motética y sagrada* aleki mardula ondu zuen. Liburua eraso bortitx samarra da eliz musikari sartzeko ari zen estilo dramatikorekin aurka. Lehendabizikoa zatian musikaren historia mitikoa egin zuen batik bat: *De la música en común: origen y desarrollo desde Adán*, bigarrena zuzen zuzenean ezagutzen zuen lana azaltzeko dugu: *De la música mensural o canto de órgano*, eta azkenekoa kezkaltzen zuen galaz mintzo zen gartsuki: *Llaman pues a la música de estos tiempos música de la moda italiana, y del estilo moderno, con cuyos renombres quiere acreditarla sus primos, ayudando a éstos los músicos, cantores e instrumentistas, con gestos, arcos de cejas, figuras del cuerpo, arrugas en la frente, y risadas descompuestas*. Liburuaren zentsurazaleak Miranda Argaz gotzaiaren bikarioa zen Manuel de la Canal, Iruñeko eliz nagusiko kapela maisua zen Andres Eskaregi, eta Zangozako Ramon anaia izan ziren. Azken honek honela zioen: *Quejase el autor de los muchos abusos que se han introducido en el canto, y de la poca veneración y respeto, que por esta razón se manifiesta en los templos. Es la moda un estilo introducido sin duda del que introduce todo lo peor, que es el Diabolo, porque tiene mucho de vanidad, y nada de virtud y perfección. Es un modo imperfecto que ha degenerado en femenino*. ■



Iruñeko Hiria xake torneo irekiko laugarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 30ean jokatu.

Davor Komljenovic (Kroazia), 2.485 ELOkoa — **Jesus Iruzebieta** (Euskal Herria), 2.385 ELOkoa.

1.d4,d5; 2.c4,c6; 3.Zf3,Zf6; 4.Zc3,c4; 5.a4,Af5; 6.Ze5,e6; 7.f3,Ab4; 8.e4.

Ikus koadroa. Beltzek arriskatu behar dela pentsatu eta partida nahastuko dute.

8....,Ae4; 9.e4,Ze4; 10.Ad2.

Defentsa sendotzen da, beste peoi baten truke.

10....,Dd4; 11.Ze4mDe4 xa; 12.De2,Ad2 xa;

13.Ed2,Dd5 xa; 14.Ec2,Za6; 15.Zc4,0-0-0; 16.De3,c5.

'Eb8' jokaldiak zuhurragoa ematen zuen.

17.Ae2.

Orain zuriak dira partida nahasten ari direnak.

17....,Dg2; 18.hG-g1,Dh2; 19.Gg7,Zb4 xa.

Zaldiak alfilarren mehatxu ezkutua zeukan. Beltzen posizioa kili-kolo dago.

20.Eb3,Zc6; 21.Af3,Zd4 xa; 22.Ea2,Dc2;

23.Za3,Da4; 24.Gc1,Da5; 25.Gf7,Gd6; 26.De5.

Zurien arriskua nabaria zen. Beltzei 'Db6' jokaldiak ez zien ezer konpontzen. Arriskatzea porrotarekin ordaindu zuten. Etsi egin zuten.



Euskalerria Irratia: ozenago eta bizkorrago

Iruñeko euskal irratia programazio berriari helduko dio datorren asteartean, zortzi urte betetzear dela

Euskalerria Irratiak programazio berria aineratuko du datorren asteartetik aurrera. Zortzi urte beteko dira laster euskara hutsez ari den Iruñeko irratia bakarrak lehendabiziko saioa plazaratu zuenetik. Etorkizunari begira, bizkorrago ibiltzea da Euskalerria Irratiko arduraduen asmoa, bizkorrago eta ozenago.

Enrike Etxarte / Iruñea

SARRI zortzi urte beteko dira euskara hutsez ari den Iruñeko irratia bakarrak lehendabiziko saioa aineratu zuenetik. Urte sail luzexka honetan erakutsi dute posible dela erdara nagusi den eskualdean, Iruñerrian, euskarazko irratia lana egitea, eta, goranzko bidean doa, gero eta ozenago, gero eta bizkorrago.

Begirada atzera botatzen baldin bada, ikusten da ez dela samurra izan Euskalerria Irratiak egin duen bidea, bide malkartsua izan baita maizko. Behaztopoak gehienetan Erakundeen aldetik iritsi dira, irratia hau (Xorroxin bezala) legetik bazter ibiltzera zigortu baitzuten. Hala ere, ateka makurraren neurriak hartu, indarrak bildu, horretara egokitu, eta aurrera egin dute, urtetik urtera gero eta sendoxeago. Iruñerriko gizon-emakumeen hizkuntz ezagutza ere oztopo izan da, baina gaztelaren itsaso zabalean euskaldunak badira, uste baino gehiago, gainera, Irratiko zuzendariak, Mikel Bujandak dioen gisan: «Hasieratik bagenekien euskaldun gutxi izateak mugak ekarriko zizkiola gure lanari, Irratian funtsezkoak baitira ahotsak, besteen ahotsak, jakina. Baina ohartu gara euskaldungoa oso zabala ez izanik ere, jendeak uste baino askoz ere gehiago garelara, eta hori aldarrikatu behar dugu eta horretan sinetsi». Alde horretatik, nabari da azken zortzi urteotan jende anitz euskaldundu dela, edota, euskaldunak gehiagotan mintzatzen direla euskaraz; gaur egun, posible da gizartearen alor gehientsuenetan euskaldunak topatzea.

Programazioari dagokionez, sekulako aldea da duela zortzi urte egiten zutenarekin alderatuta. 1988an ordubeteko saioa bertzerik ez zuten aineratzen, eta, gaur egun, zazpi ordu dira, egunean barreiatuak, modu horretan aukera emateko ahalik eta entzule gehienetara. «Ez dira itratsaio arinak, gainera —dio Mikel Bujandak—. Denboraldi honetan bereziki saiaturako gara saioak mamitzen eta errotzen, eta aintzat hartzen orain artean baztertutako izan dugun adin tartea, gazteena. Horretarako arratsgaueko orduak ballatu nahi ditugu, ostegunetan bereziki gazteei eskainiz saioa, *Gazte borrasa* izeneko hain zuzen.



Asteartean jarriko du programazio berria martxan Euskalerria Irratiak.

JOXE LACALLE



Kike Diez de Ultzurrun, Euskalerria Irratiko esataria.

JOXE LACALLE

Hortaz landara, azpimarragarri da herrietako berriemaileen sarearen osaketa eta kolaboratzaile gehiago ariko direla, alde edo molde, irratia inguruan. Joan den denboralditik datorren goizeko magazinari, *Zokobetailu* izena daramanari, eutsiko diote gainera, benetan arrakastatsua gertatu baitzen, batez ere sekulan euskal mugimenduak harapatu ez dituen euskaldunak, etxean ikasitakoak, zokoratuak, zaharrak, irratia lotzeko.

Gainontzekoan, eztabaidari, mahai-inguruari, elkarren arte-

ko iritzi trukeari, entzulearen aburuak agertzeari, bide eman nahi diete; musika saioak; albisteak indartu eta beste. Alde horretatik, lehendabiziko albiste aurrerapena goizeko zazpiak eta hogeita bostetan izanen da, bigarren albiste aurrerapena ordu erdi geroago, eta albisteak ondoko hauexek: *Bertatik bertara* goizeko zortzi eta erdietan; *Egunean eguneko* eguerdiko ordu bata eta erdietan; *Bazkalburuko* arratsaldeko hiruretatik aurrera; hirurak eta erdietan *Hesirik gabe* izeneko saila hasiko da auzo, he-

◆ Laster antenna berria prest

IRUÑERRIARI hegoaldeetik muga ezartzen dion Erreniega mendian zutitu dute antenna berria Euskalerria Irratiko kideek. Izan ere, seinalea ongi igortzearena izan da Euskalerria Irratiak izan duen beste arazoa, hutsune edota itzalgune handixko zenbait badira eta. Horrexegatik, egoki iritzi zioten antenna berria paratzeari, eta, Erreniegako kaskoa hautatu zuten metro karratu batzuk aukeran zeudelako eta oso toki aproposa delako irratia ahotsa argi eta garbi igortzeko. Diru inbertsio handia egin behar izan dute, gastuak ohi ez bezalakoak izan baitira, eta, orain udazkenean, azaroan, seguru asko, kanpaina antolatuko dute Euskalerria Irratia Elkarteko kide gehiago lortzeko, elkarte baina irratia diru iturri nagusia, hau da, egun diren 850 familiek edo bazkideek urtero ordaintzen duten 8.000 pezetako kuota.

Erreniegako antenna berriaren bitartez entzule gehiagorengana iritsiko dira, eta, are Iruñerriko mugak ere hausteko zorian izanen dira. Baina azken horri dagokionez, zuhur jokatu nahi dute, lege barrenean ari diren irratien seinaleei kalte ez egiteko, Iruñeko euskal irratia ez baitu lizentziarik. Hala ere, urriaren azkenetik aitzinera, azken probak eta neurketak egiterakoan, ozenago zabalduko da irratia ahotsa. Hortaz, hasi-hurren duten denboraldian, ozenago eta bizkorrago izanen da Euskalerria Irratia.

rri eta eskualdeetako informazioa jasotzeko berriemaileen bitartez, eta, azken albisteak ilunabarreko zortziak baino lehen-
txeago emanen dira.

Arestian aipatutako mahain-guruak edo tertuliak ondoko orduotan izanen dira: arratsaldeko lauretan asteartean (hilabetean behin) eta asteazkenero. Saio hauen xedea izanen da zenbaitetan iritzia emateko suma daitekeen beldurra, uxatzea, eta, hori bai, gai guztiak joratzeko asmoa dute.

Haurrendako ere izanen da

saiorik, *Xinguli Mangulu* izeneko hain zuzen, larunbat goizetan emanen dena, bederatzietan hasita. Iruñerriko ikastola eta ikastetxe elebidun anitzen laguntza ere izanen dute horretarako, eta, etxeko gazteenek zuzenean parte hartzen dute es-tudiotik beretik edota etxetik.

Beraz, Irratia bizkorrago ibiltzea, horixe da irratigileen asmoa, eta, horrekin batera, seinalea ozenago botatzea. Dena prest, hortaz, urriaren lehenean denboraldi berriari ekiteko, frekuentzia modulatuaren 91.4an. X

◆ Sabina Puertolas ◆ Sopranoa

«Hirugarren saria ez da meritua»

Sabina Puertolas Tafallako sopranoak hirugarren saria eskuratu zuen joan den igandean Julian Gaiarre Kantu Txapelketako finalean. Gainera, 500.000 pezetako beka jaso du ikasten jarraitu ahal izateko. Lehiaketara «oso urduri» joan zela onartzen badu ere, kontent da nafarra lortu duenarekin. Italiarako bidea gaur bertan hartuko du berriro, Carlo Bergonziren akademian ikasten jarraitzeko.

Edurne Elizondo / Tafalla

SABINA PUERTOLAS 23 urteko sopranoak Tafallan hartu gaitu, bere etxean, Italiara itzuli aurretik. Egongelako apalategi batean dira oraindik bere etxekoak eta lagunek oparitu dizkioten lore sorta ederrak. Nabari zaio pozik dela. Hala ere, oraindik gazte dela eta ikasteko asko duela uste du Tafallakoak.

■ **Julian Gaiarre lehiaketako hirugarren saria, eta gainera, milioi erdiko beka. Zer da hori guztia 23 urteko soprano nafar batentzat?**

Onespena da alde batetik, baina batez ere ikasten jarraitu ahal izateko laguntza oso handia. Oso gaztea naiz oraindik eta asko aldatuko naiz. 25 urterekin hobeto abestea espero dut, eta oraindik hobeto 27 urterekin.

■ **Nafarra izanik, Tafallakoa, nabaritu al duzu lehiaketan zehar ikusleen begikotasuna?**

Bai, bai, denbora guztian. Ez bakarrik Tafallakoa naizelako, baita Iruñean ere asko ezagutzen nautilako ere, eta hori nabaritzen da. Hala ere, urtebete zen ikusten ez nindia; hortaz, ezustekoa izan da etzat lehiaketan parte



Julian Gaiarre Lehiaketako hirugarren saria eta beka irabazi ditu Sabina Puertolas soprano nafarrak.

OSKAR MONTERO

hartzea, ez nekien zer gertatuko zen.

■ **Zure herrian abestea erantzukizun handia zen zuretzat?**

Bai, abantaila da alde batetik, baina bestetik, zure herriko ikusleen ustez ongi abestu ez baduzu, zure herriko jende horrek lurpera zaitzake. Beldur handia nion horregatik lehiaketari, ez nuen inolako ziurtasunik. Oso urduri egon naiz, ez baitakizu inoiz zer gertatuko den. Eta gauzak ongi eginda ere, beti izanen da zure kontra egonen den norbait.

■ **Onik atera zara, baina, proba honetatik.**

Bai, azkenean oso ongi atera zaizkit gauzak, eta pozik nago. Esperientzia guztiz positiboa izan da. Finalera allegatzea bakarrik

garaipena zen niretzat, banekielako gustora zeudela ikusleak nirekin. Horregatik, finalean parte hartu eta nire herrian orkestra batekin abestu ahal izatea, niri gehien gustatzen zaidana egin ahal izatea, zoragarria izan da. Ez nuen gehiagorik behar. Hirugarren saria irabazi izana ez da meritua niretzat, baizik eta Italiara lanera joan naizela frogatzeko modu bat. Ni ez nago oporretan Italian, ikasten ari naiz, aldatzen eta ongi abesten. Eta oraindik gaztea naiz.

■ **Emakumezkoen ahotsei dago kienez, Armeniako bi soprano gelditu dira lehendabiziko eta bigarren zure aurretik aurtengo lehiaketan. Zer deritzozu?**

Jaun eta jabe izan dira emakumeen artean. Izan ere, ekialdeko ahotsek oso ezaugarri bereziak dituzte. Italian ere ikusten dugu hori, oso onak dira, primeran abesten dute. Baina oro har hitz eginda ere, oso maila oneko lehiaketa izan da aurtengoa. Finalera iritsi ez den jende askok ere oso

ongi abesten zuen. Nire ustez, lehiaketa bat ez da inoiz justua partehartzaila guztientzat. Kontuan hartu behar da halako lehiaketetan bost egunetan bakarrik frogatu behar duzula nolakoa zaren eta nola abesten duzun, zenbat balio duzun finean.

■ **Julian Gaiarre edo Pablo Sarasate nazioarteko lehiaketak ditugu Nafarroan, baina oso nafar gutxi hartzen du parte. Zaletasuna badago ere, horrelako lehiaketetan parte hartzeko maila falta omen zaie oraindik hemengo abeslari eta musikariei. Zer uste duzu zuk?**

Nire ustez oso zaila da halakotan parte hartzea, batez ere, auserdia handia behar delako. Nafarroan oso gaiztoak gara, eta hemengo gauzak ez ditugu aintzat hartzen. Eta oso jende ona dago. Hor dago Pablo Sarasate Kontserbatorioa, gogor ari dira bertako irakasleak euren ikasleen alde borrokatzen, baina ez dituzte aintzat hartzen.

■ **Nafarroan, gainera, zu bezalako**

s o s l a i a

23 urterekin Julian Gaiarre lehiaketako hirugarren saria eta beka irabazi ditu Sabina Puertolas soprano nafarrak. Ez da hau, gainera, eskuratu duen sari bakarra, azken hilabeteetan beste bi lortu baititu, lehen sari bat Italian eta bigarrena Iruñen. Txikitandik datorkion zaletasuna ogibide bihurtu nahi du Tafallakoak, eta badi-rudi bide onetik doala.

Italian bi urte daramatza Carlo Bergonziren akademian ikasten, eta gaur bertan bertara itzuliko da. «Oso ongi pasatzen du», dio Sabina Puertolas sopranoak. Gainera, eguneroko lana egiteaz gain, badu noizbait Milanera gelako lagunarekin ithes egin eta erosketak egiteko aukera. Familiarengandik urriti egotea, gogorra da berarentzat.

Tafallara itzultzen den bakoitzean, beraz, minutu guztiak ongi aprobetxatzen ditu bere etxekoekin eta herriko lagunekin egoteko. «Askok gustatzen zait lagunekin irten eta disko-tekara joatea». Izan ere, hainbat sari irabazi dituen abeslaria ezezik, dantzari aparte ere omen da Sabina Puertolas.

soprano batek ez du abesteko inolako aukerarik, ezta?

Ez, ez. Murtzia eta Alacanten hainbat kontzertu eman ditut, Italian ere bira bat daukat presatuta orkestra eta guzti, baina Nafarroan zer daukat? Nafarroako Ateneoari esker kontzertu bat lortu ahal izan nuen Iruñean, eta Tafallako Udalari esker beste bat hemen, baina besterik ez. Erraztasun gehiago ematen dizkirate kanpoan, onespen handiagoa daukat. Hala ere, orain nabaritu dut jendeak maite nauela, eta kontent nago.

■ **Eta hemendik aurrera, zer bide jarraituko duzu?**

Oraingoz, ikasten jarraitzea da niretzat garrantzitsuen, ahal duan guztia ikastea. Eta inoiz ez da nahikoa. Ikasten, gainera, oso gustora nago. Poliki-poliki joan nahi dut, ez baitut presarik. Garrantzitsuen mundu honetan pixkanaka sartzea da, eta esperientzia hartzea. X

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
•30•

GAUR:

LAPU
RRA
Lieh Tzu

Aizkora galdu zuen gizon batek auzoko baten semeaz susmatzen zuen. Mutila lapur bat bezala zebilen, lapur batek bezala begiratzen zuen eta lapur batek bezala hitzegiten zuen.



Baina gizonak aizkora topatu zuen haranean aitzuritzen ari zen bitartean eta auzokoaren semea ikusi zuen hurrengoan, gazteak ibili, so eta hitz beste edozein mutilek bezala egiten zuen.

